

# BAGABILTZA

LHK-CRLko euskara-planaren buletina. 4. zk. 2021eko azaroa.

## Idatzizko barneko mezuak: trebakuntza eta neurketa

Idatzizko mezu laburren gaineko trebakuntza-saio laburra egin zen uztailaren 14an Lan Harremanen Kontseiluko Bilboko egoitzan. Josu Arroyo normalkuntza-tekniariak gidatu zuen saioa, eta Kontseiluko zazpi langilek eta Elhuyarreko ordezkari Maite Unzaluk hartu zuten parte; jardun biko saioa izan zen (aurrez aurrekoa, eta online).

Saioan, besteak beste, Gobernu Kontseiluak onartutako Hizkuntza Irizpideek barne-harremanetarako idatzi laburrei lotuta esaten dutena aipatu zen: 3.2.3

ERAKUNDEAREN BARNE HARREMANETARAKO IDATZIAK atalean, “**Langileen ar- teko idatzizko lan-harreman komunikatibo errazak** (posta elektronikoak, WhatsApp, ofizioak, gutunak, jakinarazpenak) **euskaraz idaztea sustatuko da**”. Ariketa praktikoa batzuk egin ziren, eta eredu onen berri eman zen.


Azken batean, horrelako saioen helburua, trebakuntza baino areago, lanean euskarararen erabilera sustatzen jarraitzea da.

Trebakuntza-saioa egin ondoren, barneko mezuen neurketa egin zuen Josuk.

Neurketa egiteko, 10 lankideren azken 10 mezuen hizkuntza hartu dira kontuan. Guztira, 100 mezuren lagina erabili da neurketan.

Emaitza grafiakoan ikusi daiteke. Mezuen erdiak baino gehiago euskaraz dira eta honek lankideen gaitasuna eta euskararekiko atxikimendua erakusten du.

Gure helburua euskarazko mezuen kopurua apurka-apurka igotzen joatea izango da.



■ Agurrak euskaraz, edukia gaztelaniaz

■ Dena euskaraz

■ Dena gaztelaniaz

Josu Arroyo



Argazki Lehiaketa bat

Argazki Lehiaketa bat da nik, Kontseiluko normalkuntza-tekniariak, zutabe hau idazteko arrazoia, baina arrazoi asko leudeke nik BAGABILTZA honetan zutabe bat idazteko: heldu nintzen egunetik nola hartu nauzuen erakunde honetan, nola laguntzen didazuen martxan jartzen ditugun ekimenean, nola ari garen apurka-apurka euskara Kontseilura ekartzen...

Izan ere, LHK-ko I. Argazki Lehiaketa irabaztea denekin partekatu behar dudana opari polita da. Lankide guzti-guztiokin, eta noski, Elhuyarreko bidelagun paregabeekin: lehenengo Miel, gero Beñat, eta gaur egun Maite, ekimen honen eta beste askoren ezinbesteko motorra.

Bai, Euskara Batzorde bat dago gurean, ezinbesteko lana egiten duena, baina hortik harago lantalde bat gara, eta denok egiten dugu norabide berean arraun, helburu komun batekin. Eskerrik asko denoi, eta eskerrik asko Ekhi!



Tomás Arrieta LHK-ko presidenteari elkarrizketa egin zioten Administrazioa Euskaraz aldizkari elektronikoaren 2021eko uztaileko alerako (113. zenbakia). Aldizkariko EZTABAIDA atalean *Lanaldia murriztea, sektore batzuentzako pribilegioa ala langileen eskubidea?* galdera planteatzen da, eta lau adituk bere ikuspuntua azaltzen dute.

Tomásek, esaterako, lau eguneko lanaldia ezartzeko aukerari buruz, zera esaten du: “Proposamen interesgarria da, eta hausnarketa sakona merezi du, baina, agian, ez da martxan jartzeko unea”. Euskara hutsezko argitalpen batean presentzia izatea oso garrantzitsua da guretzat. Elkarrizketa osoa ikusgai dago IVAPen webgunean.